# BESTELAKO XEDAPENAK

## ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 2363

*AGINDUA, 2020ko ekainaren 10ekoa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen laguntza osagarrien eskabideen instantzia normalizatuak; laguntzok Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko apirilaren 8ko Aginduan aurreikusi ziren, zeinaren bidez arautzen baitira familientzako laguntzen arloko neurri zehatzak COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko.*

COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko familientzako laguntzen arloko neurri zehatzak arautzen dituen Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko apirilaren 8ko Aginduaren 1.2 artikuluan –hartzaileen xede-esparrua– xedatzen denez, familia eta lana uztartzeko laguntzen laguntza osagarriak arautuko dira, salbuespen moduan eta aldi baterako erantzun nahi baitzaio lanaldia egokitzeak edo aldatzeak familiei ekarri dien diru-sarreren galerari, baldin eta seme-alabei (duten adinagatik), besteren mendeko pertsonei edo COVID-19ak erasan dien gaixoei (kutsatuak edo isolatuak) lagundu, arreta eman eta haiek zaintzeko izan bada egokitze edo aldatze hori.

Horiek horrela, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko apirilaren 8ko Aginduaren 12.2 artikuluan ezartzen duenez, eskabideak, behar bezala betetako instantzia normalizatu baten bidez, presentzialki aurkeztu ahal izango dira, Eusko Jaurlaritzako Zuzenean-Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan edota Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan.

Aurrekoarekin zuzen-zuzenean lotuta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan –administrazio-prozedurak hasteko eskaerak– xedatutakoaren arabera, prozedura jakin batean Administrazioak espresuki ezartzen baditu eredu espezifiko batzuk eskaerak aurkezteko, interesdunek nahitaez erabili beharko dituzte eredu horiek.

Adierazitako guztiagatik, eta familia babesteari eta lana eta familia bateragarri egiteari dagozkion eskumenez baliatuz, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari emandako eskumenak Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 8.1 artikuluan xedatutakoaren babesean –24/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena–, eta, berariaz, bat eginda Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 75/2017 Dekretuaren 4. artikuluaren edukiarekin, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da onartzea familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen laguntza osagarrien eskabideen instantzia normalizatuak; laguntzok Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko apirilaren 8ko Aginduan aurreikusi ziren, zeinaren bidez arautzen baitira familientzako laguntzen arloko neurri zehatzak COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko, agindu horren 1.2 artikuluari dagokionez.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Agindu honetan aurreikusitako instantzia normalizatuak aplikatuko zaizkie COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko familientzako laguntzen arloko neurri zehatzak arautzen dituen

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko apirilaren 8ko Aginduaren babesean aurkezten diren laguntza-eskabideei.

3. artikulua.– Laguntza-eskabideen instantzia normalizatuak.

1.– Jarraian adierazten diren laguntza ekonomikoen eskabideei dagozkien instantzia normalizatuak onartzen dira, eta agindu honi eransten zaizkio:

a) COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa dela-eta 14 urtez peko seme-alaba adingabeei lagundu, arreta eman eta haiek zaintzeko, lan-eszedentzia egoeran edo lanaldi-murrizketa egoeran dauden langileentzako laguntza ekonomikoen eskabidea; familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen eskabide osagarria, N OSAGARRIA izeneko instantzia normalizatuari dagokiona.

b) Besteren mendeko pertsonei edo COVID-19ak erasan dien gaixoei (kutsatuak edo isolatuak) lagundu, arreta eman eta haiek zaintzeko, lan-eszedentzia egoeran edo lanaldi-murrizketa egoeran dauden langileentzako laguntza ekonomikoen eskabidea; familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen eskabide osagarria, D OSAGARRIA izeneko instantzia normalizatuari dagokiona.

2.– Instantzia normalizatuak eta horiek betetzeko jarraibideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri. Eta, zehazki, helbide elektroniko hauetan:

a) COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa dela-eta 14 urtez peko seme-alaba adingabeak jagoteko eta zaintzeko, lan-eszedentzia egoeran edo lanaldi-murrizketa egoeran dauden langileentzako laguntza ekonomikoen eskabidea; familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen eskabide osagarria, N OSAGARRIA izeneko instantzia normalizatuari dagokiona, hemen: https:/www.euskadi.eus/servicios/0078902

b) Besteren mendeko pertsonei edo COVID-19ak erasan dien gaixoei (kutsatuak edo isolatuak) lagundu, arreta eman eta haiek zaintzeko, lan-eszedentzia egoeran edo lanaldi-murrizketa egoeran dauden langileentzako laguntza ekonomikoen eskabidea; familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen eskabide osagarria, D OSAGARRIA izeneko instantzia normalizatuari dagokiona, hemen: https:/www.euskadi.eus/servicios/0079001

4. artikulua.– Laguntza-eskabideak aurkezteko modua eta tokia.

1.– Eskabideak bide elektronikoa erabiliz zein presentzialki aurkeztu ahal izango dira.

2.– Eskabideak, telematikoki, helbide elektroniko hauetan aurkeztu ahal izango dira:

a) N OSAGARRIA instantzia normalizatuari dagozkion eskabideak, hemen: https:/www.euskadi.eus/servicios/0078902 (seme-alaba adingabeak zaintzea)

b) D OSAGARRIA instantzia normalizatuari dagozkion eskabideak, hemen: https:/www.euskadi.eus/servicios/0079001 (mendetasun-egoeran muturreko osasun-larrialdi egoeran dauden senitartekoak zaintzea)

3.– Presentzialki aurkeztu ahal izango dira eskabideak, behar bezala betetako instantzia normalizatuaren bidez, hemen:

a) Eusko Jaurlaritzako Zuzenean-Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan, aurretiazko hitzorduarekin bakarrik; hitzordua eskuratzeko helbide elektronikoa: https://www.euskadi.eus/cita-previa-zuzenean

b) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan.

5. artikulua.– Laguntza-eskabideak eskuragai jartzea.

1.– Agindu honen 2. artikuluan adierazitako laguntza ekonomikoen eskabideen instantzia normalizatuak zuzenean deskargatu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikotik, aurreko 4.2 artikuluan ezarritako helbide elektronikoen bidez.

2.– Eusko Jaurlaritzako Zuzenean-Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan ere emango dira, aurretiazko hitzorduarekin bakarrik; hitzordua eskuratzeko helbide elektronikoa: https://www.euskadi.eus/cita-previa-zuzenean

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Aurkaratzea.

Agindu honen aurka, zeinek administrazio-bideari amaiera ematen baitio, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera bi hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 10a.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

**N**
OSAGARRIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
*Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
*Dirección de Política Familiar y Diversidad*

Inprimatu

# COVID-19AK ERAGINDAKO OSASUN-KRISIAREN ONDORIOZ SEME-ALABAK ZAINTZEKO, ARTATZEKO ETA LAGUNTZEKO BETEBEHARRAK BETETZEKO ESZEDENTZIA HARTU EDO LANALDIA MURRIZTU DUTEN LANGILEENTZAKO DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEA

**IRAKURRI ARRETAZ ESKABIDEA BETETZEKO ARGIBIDEAK**

**ESKAERA AURKEZTEN DUENA**

◯ Pertsona interesatua ◯ Ordezkaria

**ESKATZAILEAREN DATUAK: Abizenek eta izenak ZEHAZKI bat etorri beharko dute zure NAN edo AIZ agertzen direnekin.**

**Titularra:**

**1. abizena:** ______ **2. abizena:** ______

**Izena:** ______ **NAN/AIZ:** ☐☐☐☐☐☐☐☐ - ☐ LETRA

**Sexua:** ☐ gizonezkoa ☐ emakumezkoa

**Egoera Zibila:** ☐ ezkongabea ☐ ezkondua ☐ izatezko bikotea ☐ banandua-dibortziatua ☐ alarguna

**Haurrarekiko harremana:** ☐ aita ☐ ama ☐ tutorea ☐ harreragile ☐ ebazpen judizial bidezko zaintzailea

☐ **% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna** ☐ **Genero-indarkeriaren biktima**

00789

**Ordezkaria:**

**1. abizena:** ______ **2. abizena:** ______

**Izena:** ______ **NAN/AIZ:** ☐☐☐☐☐☐☐☐ - ☐ LETRA

**Sexua:** ☐ gizona ☐ emakumea

**Familiaren bizilekua:** Kalea: ______ zk.: ____ Solairua: ____ Hizkia: ____

**PK:** ☐☐☐☐☐ **Udalerria:** ______ **Herria:** ______

**Lurralde Historikoa:** ______ **Telefonoa:** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐

**Erroldatuta daramazun denbora** (markatu X batez dagokion laukitxoa):

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) erroldatuta nago eta egon naiz, modu jarraituan, 2020ko martxoaren 9aren aurreko urtean. Erroldatze hori betetzen ez bada, irakurri aurkeztu behar dituzun dokumentuak.

☐ BAI ☐ EZ

Adierazi erroldatuta egon zaren herri guztiak azken 10 urteotan:

______

Adierazitako udalen bat ez badago zerrendan errolda-ziurtagiria aurkeztu behar da.
https://www.nisae.izenpe.eus/documentacion/2017/consulta-del-padron-domiciliario-rgi-ayuntamientos-de-la-capv/z15s-content/es/

1 orrialdea 11-tik

**Bi gurasoko familiaren kasuan, ezkontidearen edo bikotekidearen datuak (guraso, harreragilea, adingabearen tutorea edo zaintzailea, zeinaren zaintzarako eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatzen baita):**

**1. abizena:** ____________ **2. abizena:** ____________

**Izena:** ____________ **NAN/AIZ/Pasaportea:** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

☐ **% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna**

**Adierazi familia-unitatea edo kideren bat egoera honetan dagoen:**

☐ **% 50eko desgaitasuna edo handiagoa edo mendetasuna**
☐ **Guraso bakarreko familia**
☐ **Genero-indarkeriaren biktima**
☐ **Familia ugaria**

**FAMILIA-UNITATEAN ELKARREKIN BIZI DIREN SEME-ALABA GUZTIEN DATUAK:**

| | | % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna, edo mendetasuna | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jaiotza-data** | **Izen-abizenak** | **Bai** | **Ez** | **Adopzioa** | **Tutoretza** | **Harrera / Zaintza judiziala** | **Izen-emate edo ebazpenaren data (*)** |
| | | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | |
| | | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | |
| | | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | |
| | | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | |

(*) Adopzioaren edo tutoretzaren kasuan, Erregistro Zibileko inskripzio-data.

Adopzio aurreko zaintzaren edo harrera iraunkorraren kasuetan, administrazio-ebazpenaren data.

Ebazpen judizialez zaintzan dauden adingabeen kasuetan, zaintza ezartzen duen ebazpen judizialaren data.

Banantze, dibortzio edo baliogabetasunaren kasuan, familia-unitatea osatzen duten seme-alaben zaintza eta jagoletza egiaztatu beharko da.
Zehazki, eskatutako eszedentzian edo lanaldi-murrizketan zainduko den semearen edo alabaren zaintza eta jagoletza honako honi dagokio:

☐ Laguntza eskatu duenari ☐ Biei (zaintza eta jagoletza partekatua)

**DIRULAGUNTZA JASOKO DUEN EGOERARI BURUZKO DATUAK:**

| **Dirulaguntza jasotzeko egoera** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Eszedentzia** | **Murrizketa** | **Hasiera-data** | **Amaiera-data** | **Murrizketaren ehunekoa (%)** |
| ☐ | ☐ | | | |
| ☐ | ☐ | | | |
| ☐ | ☐ | | | |
| ☐ | ☐ | | | |
| ☐ | ☐ | | | |
| ☐ | ☐ | | | |
| ☐ | ☐ | | | |

2 orrialdea 11-tik

**LAN EGITEN DUDAN ENPRESAREN EDO ENTITATEAREN DATUAK:**

**IKF/IFZ:** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ **Izena:** ______

**Posta helbidea**

**PK:** ☐☐☐☐☐ **Probintzia:** ______ **Udalerria:** ______

**Herria:** ______ **Helbidea:** ______

zk.: ______ Solairua: ______ Hizkia: ______ **Telefonoa:** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐

**Lan-harremana**
- ☐ SEKTORE PRIBATUA
- ☐ SEKTORE PRIBATUA LANKIDEA
- ☐ ETXEKO LANGILEA

**Kontratu mota:**
- ☐ MUGAGABEA
- ☐ HILABETE 1 edo gutxiagoko ALDI BATERAKOA
- ☐ HILABETE 1-tik 6-rako ALDI BATERAKOA
- ☐ URTE 1 ERAKO 6 HILABETEKO ALDI BATERAKOA
- ☐ URTE 1 baino gehiago
- ☐ BESTE BATZUK

**Enpresako langile-kopurua:** ☐

Lanaldi mota: ◯ Osoa ◯ Partziala

* Ehunekoa, sektoreko hitzarmeneko lanaldi osoarekiko (%) ______

OHARRA: eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu aurretik langileak egiten zuen lanaldia (kontratuaren arabera) zehaztu behar da, eszedentziarik edo lanaldi-murrizketaren ehunekorik kontuan izan gabe.

**JAKINARAZPENARI BURUZKO DATUAK:**

Komunikatzeko hizkuntza: ☐ Euskara ☐ Gaztelania

Jakinarazpen-bidea: ☐ Ohiko posta ☐ Telematikoa

Jakinarazpen-bidea telematikoa izatea aukeratzen baduzu, nahitaezkoa da identifikazio elektronikorako bitarteko baliodun bat izatea (besteak beste, NAN elektronikoa, Izenpe herritarren txartela, B@kQ txartela/Itsasontzi-jokoa edo Identifikazio elektronikorako onartutako beste bitartekoak).
Zure espedientea erabakita dagoenean e-mail edo SMS bat jasoko duzu (aukeratu duzun jakinarazpen-oharra egiteko bidearen arabera), eta hau jakinaraziko zaizu: www.euskadi.eus/familia webgunera jo behar duzula, identifikazio-txartela txertatu eta “Nire karpeta” atalean sartu, eta hor ikusi ahal izango duzu ebazpena osorik.

Jakinarazpen-oharra egiteko bidea:

**Mugikorra** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐

**E-maila** ______

## ESKATZAILEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

**Nik,** (izena eta bi abizenak) ______________________________

NANarekin/AIZrekin egiaztatuak ______________

**NIRE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT:**

**Lehena: Aukeratu bi aukeretako bat:**

☐ a- Ez naiz laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen eskutik.

☐ b- Administrazioren baten laguntza jasotzen ari naizela, zein kopurutan? ____________________

**Bigarrena:**

☐ Ez nago zigor- eta administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta, eta ez nago, halaber, hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak esanbidez aipatuta, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa) Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki.

**Hirugarrena:**

☐ Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitako itzultze- edo zehapen-prozedurarik, ez dudala irekita.

**Laugarrena:**

☐ Hartu dudan eta dirulaguntza eskatzeko xede den eszedentziak edo lanaldi-murrizketak eragin du nire ohiko lanaldiarengatik jasotzen dudan soldataren benetako murrizketa.

**Bosgarrena:**

☐ Irakurri ditut inprimaki hau betetzeko jarraibideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko eranskinak, eta egiazkoak dira eta ontzat ematen ditut eskabidean bilduta dauden datuak eta eskabideari erantsita doan dokumentazioa.

**Seigarrena:**

☐ Laguntza hauen onuradun izateko indarreko legerian ezarritako baldintzak betetzen ditut eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa dut; horretaz gain, laguntza baliatzeko denboraldi osoan baldintzak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dut.

**Zazpigarrena:**

Eskatutako eszedentzian edo lanaldi-murrizketan zainduko, artatuko eta lagunduko den semea edo alaba:

☐ Haurtzaindegi batean matrikulatuta zegoela 2020ko martxoaren 9an. 3 urtetik beherako semea edo alaba denean.

☐ Ikastetxe batean matrikulatuta zegoela. Dibertsitate funtzionala edo desgaitasun aitortua duen 14 urtetik gorako semea edo alaba denean.

**HAU ESKATZEN DUT:**

Familientzako laguntzen arloko neurri zehatzak arautzen dituena Covid-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko apirilaren 8ko Aginduan, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, aurreikusitako laguntza eman diezadatela.

____________________ (e)n, ____________________________ (e)an

**ESKATZAILEAREN SINADURA**

**LEGE-OHARRAK**
**17.3. artikulua** (Ikuskapena eta kontrola).- AGINDUA, 2020ko apirilaren 8koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, familientzako laguntzen arloko neurri zehatzak arautzen dituena Covid-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko.
Laguntzak kudeatzen dituen organo eskudunak ikuskapen- eta kontrol-lanak egin ditzake agindu honen helburuak betetzen direla bermatzeko.

4 orrialdea 11-tik

## ESKATZAILEAREN ETA HAREN EZKONTIDE EDO BIKOTEKIDEAREN BAIMENAK

**ESKATZAILEA**

**Izena eta bi abizenak:** ______________________________

NAN/AIZ: ____________

**EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA**

**Izena eta bi abizenak:** ______________________________

NAN/AIZ/Pasaportea: ____________

**LAGUNTZAREN ORGANO KUDEATZAILEARI BAIMENA EMATEN DIOT OFIZIOZ EGIAZTATZEKO**

| | ESKATZAILEA | EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA |
|---|---|---|
| Administrazio eskudunaren bitarteko elektronikoen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroa edo egoera zibila egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko. | ☐ | ☐ |
| Administrazio eskudunaren bitarteko elektronikoen bidez errolda historiko eta etxekoko ziurtagiria egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko. | ☐ | ☐ |
| Administrazio eskudunaren bitarteko elektronikoen bidez familia ugariko tituloa egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko. | ☐ | ☐ |
| Administrazio eskudunaren bitarteko elektronikoen bidez nortasuna (NAN/AIZ) egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko. | | ☐ |

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak ofizioz egiaztatuko ditu administrazio eskudunean datu hauek:

**Gizarte Segurantzarekiko, Gizarte Segurantzaren ordezko sistemekiko eta ogasun sistemekiko betebeharretan egunean dagoela jasotzen duen.**

**Administrazio eskudunaren bitarteko elektronikoen bidez nortasun-agiri nazionala edo atzerritarraren identifikazio-zenbakia.**

**Baimenik ematen ez baduzu, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzu.**

**Izenpetua**
**ESKATZAILEA**

**Izenpetua**
**EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA**

**Eskaeran jasota dauden izaera pertsonaleko datuak tratatu eta jarraian izendatzen den tratamendu jarduerara gehituko dira:** Familientzat laguntzak.

- **Arduraduna:** Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
- **Helburua:** Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko eta seme-alabak zaintzapean dituzten familiak babesteko dirulaguntzen kudeaketa.
- **Legitimazioa:** Tratamendua beharrezkoa da, aplikagarriak diren lege-eginbideak betetzeko..
- **Eskubideak:** erabiltzaileak eskubidea du datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko eta ezabatzeko, baita informazio osagarrian jasotzen diren eskubideak ere.
- **Informazio osagarria:** datuen babesari buruzko informazio osagarria eta zehatza kontsulta daiteke gure web orrian. https://www.euskadi.eus/dbao/0078902

Indarrean dagoen araudia:

- Datuak babesteko erregelamendu orokorra https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf.
- Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf

5 orrialdea 11-tik

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU-OGASUNEI DATU EKONOMIKOAK ESKATZEKO BAIMENA**

**DATU EKONOMIKOAK ESKABIDE HAU AURKEZTU AURREKO BI URTEEI DAGOZKIE**

**ATAL HAU DERRIGOR BETE BEHARKO DA ESKABIDE GUZTIETAN, kasu hauetan izan ezik:**

**1) 2020. urtea aurreko bi urteei dagokien zergaldian PFEZaren aitorpena EAEtik kanpo egin bazenuen edo egitea tokatzen bazitzaizun.**

**2) Azken hiru urteetan zure identifikazio-dokumentuan aldaketaren bat egin baduzu (AIZa izatetik NANa izatera pasatu bazara, izenaren grafia aldatu baduzu, abizenean hurrenkera aldatu baduzu, eta abar).**

**3) Pasaportearekin identifikatzen bazara.**

**Kasu horietan, derrigor aurkeztu beharko da PFEZ errenta-aitorpenaren fotokopia, 2020. urtearen aurreko bi urteei buruzkoa edo, horren ezean, PFEZean kontuan hartutako diru-sarreren ziurtagiria, dagokion administrazioak emana.**

## ESKATZAILEAREN DATUAK:

**1. abizena:** ____________________ **2. abizena:** ____________________

**Izena:** ____________________ **NAN/AIZ:** ☐☐☐☐☐☐☐☐ - ☐ (LETRA)

## EZKONTIDEAREN/BIKOTEKIDEAREN DATUAK:

**1. abizena:** ____________________ **2. abizena:** ____________________

**Izena:** ____________________ **NAN/AIZ/Pasaportea:** ____________________

| **A.- BAIMENA EMATEN DUZU FORU-OGASUNARI DATUAK ESKATZEKO?** | **ESKATZAILEA** | **EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA** |
|---|---|---|
| Ez dut baimenik ematen, eta gutxieneko laguntzari heltzen diot | ☐ | ☐ |
| Ematen dut baimena datuak eskatzeko | ☐ | ☐ |
| **B.- AURKEZTU AL ZENUEN ERRENTA-AITORPENA?** | | |
| Ez nuen errenta-aitorpena aurkeztu | ☐ | ☐ |
| Aurkeztu nuen errenta-aitorpena | ☐ | ☐ |
| **C.- ZER MOTATAKO ERRENTA-AITORPENA AURKEZTU ZENUEN?** | | |
| Banakako aitorpena | ☐ | ☐ |
| Baterako aitorpena, egungo ezkontide edo bikotekidearekin | ☐ | ☐ |
| Baterako aitorpena, aurreko ezkontide edo bikotekidearekin | ☐ | ☐ |
| Banakako eta baterako aitorpena | ☐ | ☐ |
| **D.- ZER LURRALDE HISTORIKOTAN AURKEZTU ZENUEN EDO AURKEZTU BEHAR ZENUKEEN?** | | |
| Araban | ☐ | ☐ |
| Bizkaian | ☐ | ☐ |
| Gipuzkoan | ☐ | ☐ |

____________________ (e)n, ____________________ (e)an

**IZENPETUA: ESKATZAILEA** **IZENPETUA: EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA**

**DIRU-SARRERARIK EGIAZTATZEN EZ BADA, GUTXIENEKO LAGUNTZA jasoko da**

6 orrialdea 11-tik

## N OSAGARRIKO ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

**a.-** Eskatzailearen ezkontidearen edo egungo bikotekidearen nortasunaren egiaztagiria, beti ere, laguntzak kudeatzen dituen organoari baimena eman ez badio administrazio eskudunaren bitarteko elektronikoen bidez bere nortasuna begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko, edo pasaportearen bidez identifikatzen bada. Nortasuna honako agiri hauen bidez egiazta daiteke: NANaren, Atzerritarren Identifikazio Txartelaren edo pasaportearen fotokopia.

**b.-** Laguntza-eskatzailearen eta lagundu, artatu eta zaindu beharreko pertsonaren artean honako harremanen bat izatearen egiaztagiria: filiazioa, adopzioa, tutoretza, ebazpen judizial bidezko zaintza, familia-harrerako zaintza, adoptatu aurreko elkarbizitzarako zaintza eskuordetua. Horretarako, aurkeztu daitezke, besteak beste, honako agiri hauek: jaiotza-egiaztagiria; familia-liburuaren fotokopia; adopzioa, tutoretza edo zaintza judiziala ezartzen duen ebazpenaren fotokopia; edo, familia-harrerako edo adoptatu aurreko elkarbizitzarako zaintza ezartzen duen ebazpen-administratiboaren fotokopia.

Era berean, beharrezkoa da egiaztatzea laguntza-eskatzailearen familia-unitatea zehazteko zenbatzen diren kide guztiekin duen harremana, honakoei dagokienez: ahaidetasuna, filiazioa, adopzioa, tutoretza, ebazpen judizial bidezko zaintza, familia-harrerako zaintza, adoptatu aurreko elkarbizitzarako zaintza eskuordetua.

**c.-** Eskatzailearen errolda-agiri eguneratua, eta bertan agertuko da etxebizitzan bizi diren pertsona guztien zerrenda (2020ko martxoaren 9ko familia-unitatearen osaera jakiteko), eta eskatzailea udalerrian erroldatu zen eguna.

Eskatzailea 2020ko martxoaren 9aren aurreko urtean ez bada bizi izan edo ez bada etenik gabe erroldatuta egon Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritako erroldan, egungo errolda-ziurtagiriaz gain (ziurtagiri horretan eskatzailearekin batera bizi diren guztiak agertu beharko dira), azken hamar urteetan bost urtez jarraian EAEko udalerriren bateko erroldan erroldatuta egon dela egiaztatzen duen errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Erroldatze datuak egiaztatzeko baimena eman badu elkarreragingarritasunerako zerbitzuen bidez, adierazi beharko du aldi horietan zein udalerritan erroldatuta egon den.

Ez da onartuko laguntza-eskabidea aurkeztu den eguna baino hilabete lehenagoko errolda-ziurtagiririk.

**d.-** Gizarte Segurantzako agiria, non egiaztatzen den eszedentzia edo lanaldi-murrizketa egoera.

Eszedentziaren kasuan, seme-alabak zaintzeagatik Gizarte Segurantzan baja baliatu izanaren partearen kopia, eta Gizarte Segurantzako agiria, non egiaztatzen baitira: batetik, zer kontratu mota den egiaztatzen duena -lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa, eta, kasu horretan, lanaldi osoaren aldean zenbateko ehunekoa den -, eta, bestetik, eszedentzia egoeran egondako denbora.

Eta, lanaldi-murrizketaren kasuan, seme-alabak zaintzeagatik Gizarte Segurantzaren datuetan izandako aldaketari buruzko txostenaren kopia (kotizazio-datuen txostena), non agertu beharko baita ehuneko zenbat murriztu den eskatzailearen ohiko lanaldia, kontratua kontuan hartuta.

Salbuespen gisa, eszedentzia edo lanaldi-murrizketaren xedea 3 edo 12 urtetik gorako semea edo alaba laguntzea, artatzea eta zaintzea denean, hurrenez hurren, honako agiriak onartuko dira: Gizarte Segurantzan baja baliatu izanaren partearen kopia eta Gizarte Segurantzaren datuetan izandako aldaketari buruzko txostenaren kopia, aurreko datuak adierazten dituztenak, seme-alabak zaintzeagatiko xedea izan ezik.

Gizarte Segurantzako autonomoen araubide bereziko kooperatiba-sozietateetako bazkide langileei eta lan-bazkideei ez zaie eszedentzia-baja eskatuko. Halakoetan, kooperatiba-sozietatearen ziurtagiria aurkeztu behar dute, non egiaztatzen den kooperatiba-sozietateetako bazkide langile edo lan-bazkide direla, eszedentzian edo lanaldi-murrizketan daudela, kontratu-mota -lanaldi osokoa edo partzialekoa-, diruz lagundu daitekeen jarduketan egondako aldiak, kotizazio-mota eta eszedentzia edo lanaldi-murrizketa dela-eta kotizazio-datuetan gertatutako aldaketak. Edonola ere, egiaztagiriak kooperatiba-sozietatearen arduradunaren sinadura eta zigilua izan beharko ditu.

**e.-** Eskatzailearen familia-unitateko gurasoen edo arbasoen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) likidazioaren fotokopia, dagokion zerga-administrazioak egina. Pertsona bakoitzaren PFEZ aitorpena bateratua edo banakakoa izan daiteke, baina beti alarma-egoera deklarazioa aprobatu (2020. urtea) aurreko bi urteei dagokien zergaldiari buruzkoa izan beharko du.

Aurreko dokumentaziorik ezean, dagokion zerga-administrazioak emandako ziurtagiria, non adierazi beharko baitira PFEZi egoztekoak diren 2020. urtea aurreko bi urteetako zergaldiko errenta eta errendimendu guztiak.

Nolanahi ere, dokumentazio hori egoera hauetakoren batean egonez gero aurkeztu beharko da:

- Eskabidea aurkeztu aurreko bi urteei dagokien zergaldian PFEZaren aitorpena EAEtik kanpo egin badu edo EAEtik kanpo egitea bazegokion.

- Azken hiru urteetan eskatzailearen nortasun-agirian aldaketaren bat izan bada (AIZa izatetik NANa izatera pasatzea, izenaren grafia aldatzea, abizenen hurrenkera aldatzea eta abar).

- Identifikatzeko pasaportea erabili bada.

**f.-** Hirugarrenaren altaren fitxa, eskatzailearen bankuko datuak dituela.

Zehazki, https://www.euskadi.eus/altaterceros helbide elektronikoan erantsita dauden ereduetatik bat aukeratu beharko da, banku-erakundea hauetakoren bat den edo ez kontuan hartuta: KUTXABANK, LABORAL KUTXA, BANKOA, CAIXABANK, BBVA, BANCO SANTANDER, POPULAR, SABADELL edo CAJA RURAL DE NAVARRA.

Eskabide hau aurkeztu ondoren, laguntzak kobratzeko banku-kontuaren zenbakia aldatu dela jakinaraziz gero, laguntzak kudeatzen dituen organoak egingo du aldaketa, eta, hortaz, aldaketa ez da berehalakoa izango.

**g.-** Izatezko bikotea izanez gero, hori egiaztatzen duen agiria.

**h.-** Eskatzailearen ezkontza deuseztatu bada, edo eskatzailea banandu edo dibortziatu bada, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatzeko arrazoia den seme edo alabaren zaintza eta babesa esleitzen dion ebazpen judizialaren fotokopia. Ez da onartuko gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak arautzen dituen hitzarmenik, baldin eta dagokien berrespen-epairik ez badute.

**i.-** Familia-unitatea osatzen duen norbaitek % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna edo mendekotasun aitortu bat izanez gero, hori egiaztatzen duen ziurtagiria, administrazio eskudunak emana.

**j.-** Eskatzailea genero-indarkeriaren biktima izanez gero, egoera horren egiaztagiria. Horretarako, bide hauetakoren bat erabiliko da:

- Indarkeriaren biktima babesteko agindua indarrean egotea eskabidea egiten den egunean.

- Genero-indarkeriatzat hartzen diren ekintzengatiko zigor-epaia, non biktimaren aldeko babes-neurriak hartzea erabaki baita; babes-neurriok indarrean egon beharko dute laguntza-eskaria egiten den egunean.

- Baldin eta babes-agindurik edo zigortzeko epairik ez badago, Fiskaltzaren txostenak balioko du egoera hori egiaztatzeko, babes-agindua ematen den arte; txosten horretan adieraziko da zantzuak daudela eskatzailea genero-indarkeriaren biktima izateko.

**k.-** Eskatzailea guraso bakarreko familia batekoa bada, eta eszedentzia edo lanaldi murrizketaren xedea semea edo alaba laguntzea, artatzea eta zaintzea izan bada, semea edo alaba ekonomikoki bakarrik haren mende dagoela egiaztatzea. Hainbat dokumenturen bidez egiazta daiteke egoera hori: beste gurasoaren heriotza egiaztagiria edo mantenuaren ordainketa bete ez izanaren egiaztapen judiziala.

**l.-** Eskatzailea familia ugarikoa bada, horren egiaztagiria, Familia Ugariaren Tituluaren fotokopiaren bidez.

**ll.-** Diruzlagundutako egoera alarma-egoera amaitu ondoren mantenduko balitz, adingabea matrikulatuta zegoen ikastetxearen agiria, non adierazi behar den 2019/2020 ikasturtearen amaiera-data, ikastetxeak onartuta zuen hezkuntza-jardueraren egutegia aintzat harturik.

**m.-** Eszedentziaren edo lanaldi-murrizketaren xedea 2020ko martxoaren 9an haurtzaindegi batean matrikulatuta zegoen semea edo alaba laguntzea, artatzea eta zaintzea izan bada, ikastetxe edo haurtzaindegiaren agiria, non egiaztatu behar den: adingabea adierazitako datan zentroan matrikulatuta zegoela.

**OHARRA:** Ez dira a), b), e), g) eta l) letretan adierazitako agiriak aurkeztu beharko, baldin eta beharrezko datuak elkarreragingarritasunetarako zerbitzuen bidez egiaztatzeko baimena eman bada, edo kontsulta legez ezarritakoa bada.

## ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

*Bete datuak hemen dituzun argibideei jarraituz; 0 atala administrazioak beteko du. Zenbakizko datuak eskuinera doituko dira; hartara, hutsik utzi behar den laukitxorik izanez gero, ezkerrekoak utziko dira hutsik.*

*NANaren laukitxoa betetzeko adibidea:* | | | | | | | | |Z|
LETRA

**ESKATZAILEAREN DATUAK:** Adingabearen zaintza eta babesa esleituta dituen eta adingabe hori laguntzeko, artatzeko eta zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duen pertsona da -gurasoa, tutorea, hartzailea edo zaintzailea-.

- NAN/ANT: eskatzaileak espainiar herritartasuna badu, NAN zenbakia idatzi beharko da, eta ez badu, ANT zenbakia.
- Familiaren bizilekua: atal honetan adierazten den helbidea jakinarazpenak bidaltzeko ere erabiliko da.

**ESKATZAILEA EZ DEN PERTSONAREN DATUAK:** Familia-unitatearen beste aurreko ahaidea da, hau da, laguntza eskatzen ez duen pertsona. Bereziki, izan daiteke beste gurasoa, adingabearen tutorea, harreragilea edo zaintzailea, zeinaren laguntzarako, artatzerako edo zaintzarako eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatzen baita, edo, hala badagokio, ezkontidea edo bikotekidea.

**FAMILIA-UNITATEAN BIZI DIREN SEME-ALABEI BURUZKO DATUAK:** Familia-unitatean bizi diren seme-alaba guztiak zehaztu behar dira. Eta haietakoren batek % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendekotasuna badu, erakunde eskumendunak onartuta, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu.

Datu hauek beharrezkoak dira familia-errenta estandarizatua zehaztu ahal izateko.

Bestalde, atal honen barruan adierazi behar da **FAMILIA-UNITATEA EDO FAMILIA-UNITATEKO KIDEREN BAT** egoera hauetakoren batean dagoen: desgaitasun- edo mendekotasun-egoera; genero-indarkeriaren biktima; guraso bakarreko familia; familia ugaria.

- Familia ugaritzat jotzen dira egoera hori onartu zaien familia-unitateak, Familia Ugarien Babeserako azaroaren 18ko 40/2003 Legean oinarrituta. Eta, horrenbestez, egoera hori egiaztatzen duen agiria eman zaie, Familia Ugariaren Titulua, hain zuzen ere.
- Guraso bakarreko familiatzat jotzen dira familia-unitatean seme-alabak ekonomikoki eskatzailearen mendekoak soilik direnean.

**JAKINARAZPEN DATUAK:** Eskatzaileak aukeratzen duen bidea, eskaerari dagozkion jakinarazpenak jasotzeko.

Aukeratutako **jakinarazpen-bidea posta bidezkoa bada**, **ESKATZAILEAREN DATUETAN** zehaztutako **familiaren bizileku helbidera** bidaliko dira.

Aukeratutako jakinarazpen-bidea telematikoa bada, Nire karpeta-ko Jakinarazpen- eta komunikazio-erretilura bidaliko dira. Horra sartzeko onartua den identifikazio-elektroniko bat edukitzea beharrezkoa da; besteak beste, NAN elektronikoa, Izenpe herritarren txartela, B@kQ txartela / Itsasontzi-jokoa, edo Identifikazio elektronikorako onartutako beste bitartekoak.

**HIRUGARRENEI ALTA EMATEKO FITXA:** Eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu behar den agiria da, eta dirulaguntza zer kontutan kobratu nahi den adierazteko balio du.

Zehazki, https://www.euskadi.eus/altaterceros helbide elektronikoan erantsita dauden ereduetatik bat aukeratu beharko da, banku-erakundea hauetakoren bat den edo ez kontuan hartuta: KUTXABANK, LABORAL KUTXA, BANKOA, CAIXABANK, BBVA, BANCO SANTANDER, POPULAR, SABADELL edo CAJA RURAL DE NAVARRA.

## ESKABIDEAK AURKEZTEKO MODUA ETA LEKUA

Modu elektronikoan nahiz ez-elektronikoan aurkeztu ahal dira laguntza-eskabideak.

Izapidetze elektronikoa egin daiteke eskabidea elektronikoki honako helbide elektronikoan aurkeztuz:

www.euskadi.eus/familia

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahal dira leku hauetan:

Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan –Zuzenean Zerbitzua–. **ZUZENEAN** Zerbitzuko bulegoak honako helbide hauetan kokatuta daude

- Araba lurralde-historikoa: Ramiro de Maeztu kalea 10 (01005 Vitoria–Gasteiz).
- Bizkaia lurralde-historikoa: Diego López de Haro jauna Kale Nagusia 85 (48011 Bilbao).
- Gipuzkoa lurralde-historikoa: Andia kalea 13 (20004 Donostia).

ZUZENEAN, Herritarrentzako Zerbitzuaren informazio-telefonoa: **012**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluak zehaztutako organoen aurrean ere aurkez daiteke:

- Zuzentzen zaion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan, eta 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen erregistro elektronikoetan.
- Posta-bulegoetan, araudiz ezarritako forman.
- Espainiak atzerrian dituen diplomaziako ordezkaritzetan edo kontsuletxeetako bulegoetan.
- Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.

## ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

**ESKAERA AURKEZTEKO EPEAREN HASIERA:** Alarma-egoera amaitu ondoren.

**AURKEZTEKO EPEA:** Urtebetekoa izango da, alarma-egoera amaitu eta biharamunetik hasita.

